



## SEME-ALABEKIN HARREMANAK SAKONDUZ

Urtero bezala, Tolosako Udalak Guraso Topaketak antolatu ditu 16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoentzat » 2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2008-10-22

VIURTEA 1540.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## EHNE: «Erosleek hemen ekoizten den haragia eska dezaten nahi dugu»

**TOLOSA** Sindikatuko haragi sektoreko kideek agerraldia egin dute «hemen egoera jasanezina» dela salatzeko

**ARAZOAK** Sektorearen gainbehera duela 2 urte hasi zen: «Kontsumitzen den 10 txahaletatik 8 kanpokoak dira» 3



Aritz Katarain EHNEko haragai saileko arduraduna eta Garikoitz Zarate koordinatzailea nekazariekin batera atzo eginiko agerraldian. NEREA URBIZU

**'Herrien Astea'-ren baitan hitzaldi, erakusketa eta dokumentalak**

**IBARRA** Jatorkin elkarteak antolatu ditu topaketak hilaren 27an hasita 6

**Musikarekin ekingo diote bihar kultur jardunaldiei**

**ASTEASU** Udaletxeko aretoan zuzeneko saioa izango da 5

**Ekialde-ijito dantza ikastaroa Asvinenean 4**

iragarkilaburrak.com  
euskarazko iragarri baburren ataria

zure-iragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira  
tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza  
webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

## Punturik gabeko jardunaldia Usabal MT taldeko jokalarientzat

**Mahai tenisa** » Espainiako Bigarren Mailakoek 2-4 galdu zuten; Euskadiko Lehen Mailakoek, berriz, 1-4.

### ERREDAKZIOA

Ez zen jardunaldi ona izan pasaden asteburuko Usabal Mahai tenistaldekoko jokalarientzat. Izan ere, aurreko asteko garaipenaren ostean, ez dute puntuak batzerik izan, ez Espainiako Bigarren Mailakoek, ezta Euskadiko Lehen Mailakoek ere.

Aragoiko (Espainia) CAI Santiagotaldearen aurka jokatu zuten Bigarren Mailakoek etxean. Usabalera jokalar oso onak ekarri zituen taldeak eta amaierara 2-4ko markagailuarekin heldu ziren.

Iker Mugerzak ekin zion lehiari, bere bakarkako neurketarekin. Alberto Luño izan zuen aurrez aurre eta azken hau izan zen onena. Berrinketa Emiliano Antonek lortu zuen etxekoentzat, Serraten aurkakoan irabazi ondoren.

Eric Diezen txanda heldu zen ondoren eta honek ezin izan zuen bere aurkaria gainditu. Ohi bezala, ondoren bikoteek jokatu zituzten euren partidak. Etxekoek partidari buelta emateko esperantza bazuten ere, binakakoan ere ezin izan zuten. Markagailu orokorrean, beraz, 1-3koa zegoen. Ondoren, Iker Mugerzak berriz ere bakarkako aritu zen Serraten aurka. Orduan bai, irabazi egin zuen eta markagailuan 2-3koa jarri zuen. Haatik, bertan behera geratu ziren berdintzeko esperantzak, izan ere Luñoen aurkako azken partidari galdu egin zuten.

Euskadiko Lehen Mailan ere ezin izan zuten garaipenik eskuratu Irungo Leka Enearen aurkakoan. Raulek lortu zuen puntu bakarra ez zen nahikoa izan garaipena eskuratzeko.

### Datorren jardunaldiak

Bigarren Mailakoak Krafft Atletico San Sebastian taldearen aurka ariko dira eta Lehen Mailakoak, berriz, Artxandakoren aurka.

# Seme-alabekin komunikazioa hobetze aldera, Guraso Topaketak

**Hezkuntza** » 16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago; urriaren 31ra arte eman daitezke izena.

### ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuek Guraso Topaketak antolatu dituzte azarotik aurrera, 16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta. Hain zuzen, guraso hauei guztiei deialdi berezia egin diete eta parte hartzera gonbidatu nahi dituzte.

Udaletik azaldu dutenez, Topaketa hauen helburua «gure seme-alabekin afektuzko harremanak eta komunikazio ona izatea eta errespetua eta elkarren artean bizitzeko arau eta muga batzuk erakitzea» da. Horregatik da garrantzitsua gurasoen parte-hartzea, bai ama zein aitarena, izan ere, amak izaten dira batik batik parte hartzen dutenak.

### Saioen edukiak

Osatzen diren taldeen partaideek zeresan handia izango dute saioen edukiak zehazterakoan, izan ere, «gai zerrenda bat aurkeztea interesgarria den arren, bertaraten diren aita eta amen beharretara egokitu dira aurtengo topaketak». Hau dela eta, taldearen arabera definituko dituzte arduradunek gaiak.

Hala ere, aurreko urteetako partaideek aurkezturiko gaiak kontutuan izanik, zenbait azpimarratzen dituzte, hala nola, «garapen psikologikoa haurtzaroen, nerabe eta gurasoen arteko harremana, seme-alaben autoestima eta autonomia, baloreen heziketa, aisialdia eta denbora librearen kudeaketa, anai-arreben arteko liskarrak eta zeloak, bizitzarako trebetasunak, komunikazioa, elikadura nahaste-

ak, arauak eta mugak, jostailuak eta jolasak...». Gai ugari lantzen dituzte, beraz, guraso guztientzat egokiak izan daitezkeenak.

### Egutegia, otsailera arte

Guraso Topaketetan parte hartzen interesa dutenek urriaren 31ra arte dute izena emateko epea. Horretarako Tolosako Udaletxeko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete (Plaza Zarra, 6 A). Ordutegia ere finkatu dute, 10:00etatik 13:00etara, asteleheneetik ostiralera (ostegunean izan ezik). Bertaratu ezin dutenentzat telefono zenbaki bat ere ireki dute horretarako: 943 697460.

Guraso Topaketen eskolak azaroan hasiko dira. Hala, otsailera bi-

tardean 13 egun finkatu dituzte taldea elkartzeko. Ordutegia, guztietan berdina izango da, 15:15etik 16:45era, hain zuzen ere.

Hauek dira elkartzeko egunak zehaztuta: azaroaren 6an, 13an, 20an eta 27an; abenduaren 4an, 11n eta 18an; urtarrilaren 8an, 15an, 22an eta 29an; eta otsailaren 5ean eta 12an.

Topaketen hizkuntza zehazteko dago, izena ematen duten gurasoen kopuruaren arabera izango delarik. Hala, bi talde egingo litzukete, bata euskaraz eta bestea

gaztelaniaz. Matrikulak 60 euroko kostua du baina eskolen %80a jokatzen direnei Udalak 50 euro bueltatuko dizkie, 10 euroko kostua soilik izango delarik. Izena ematerakoan kontu zenbakia eman behar da ordainketa helbideratzeko.

Haur txikiak dituzten eta Guraso Topaketetan parte hartu nahi duten gurasoentzat haurtzaindegi zerbitzua ere jarriko dute. Haatik, zerbitzu honen erabilerearen interesaren berri izena ematerakoan bertan eskatu beharko dute gurasoek.

### » HAINBAT DATU

#### ■ Zer.

Gurasoen Topaketak.

#### ■ Norentzat.

16 urte arteko seme-alaben gurasoentzat.

#### ■ Hizkuntza.

Bi talde egiteko aukera izango da. Bat euskaraz, eta bestea gaztelaniaz.

#### ■ Lekua.

Errota (Haur Liburutegia).

#### ■ Matrikula.

60 euro. Izena ematerakoan kontu zenbakia eman behar da ordainketa helbideratzeko. Asistentzia

%80 baino gehiago dutenei 50 euro bueltatuko zaizkie.

#### ■ Izen-ematea.

Urriaren 31ra arte. Tolosako udal txeko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetan (Plaza Zarra, 6 A. 943 697460 telefono zenbakian, 10:00etatik 13:00etara, asteleheneetik ostiralera, ostegunetan izan ezik).

#### ■ Xehetasunak.

Izena ematerakoak haurtzaindegi zerbitzua eska daitezke; Tolosan bizi direnek lehentasuna izango dute.



Urtero antolatzen dituzte Guraso Topaketak, Haur Liburutegian; irudian aurreko urteetako topaketak. ENERITZ MAIZ

## Sagar tarta lehiaketa antolatu dute Tolosa Goxuaren baitan

**Gizartea** » San Frantzisko pasealekuan aurkeztu behar dira tartak 10:00etatik 11:00etara; edonork har dezake parte.

### ERREDAKZIOA

Larunbat honetarako, Tolosa Goxua azoka antolatu dute herriko kaleetan. Ekitaldi ugari izango dira honen baitan, baita hainbat lehiaketa ere.

Hala, San Frantzisko pasealekuan sagar-tarta lehiaketa egingo

dute. Udaletik parte hartzeko deialdia egin nahi diete herritar guztiei. Lehiaketa irekia da eta, beraz, edonork har dezake parte bertan.

Parte-hartzaileek 10:00etatik 11:00etara bitartean entregatu beharko dituzte euren tartak eta parte hartzeko aurkeztutako tartaren errezeta ere eraman beharko diote epaimahaiari.

Arduradunek jakitera eman dutenez, dastaketa edo kata itsua izango da, alegia, epaimahaiakideek ez dute jakingo egilea zein den. Bestalde, postre eta gozogintzako

adituek osatuko dute epaimahaia: Eva Argiñano, Lourdes Rekondo eta Jose Mari Gorrotxategi, eta Allarizko gozogile batzuk.

### Sari interesgarriak

Irabazleak Tolosako gozogintzako produktuekin osatutako lote bat jasoko du (200 euroko balioa izango du) eta bigarrenak 150 euroko balioa duen lotea. Sari-banaketa 13:00etan izango da, San Frantzisko pasealekuan bertan. Izena aurrez ematea gomendatu dute, telefono honetara deituta: 943 654466.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# «Kontsumitzaileak hemen ekoizten den haragia eska dezan nahi dugu»

**Ekonomia** » EHNEko haragiko sektorea «egoera txarra dela eta» kezkatu, erosleari konpromisoa eskatu dio.

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako EHNE Sindikatuak Gipuzkoako haragi sektoreak duen egoera txarraren berri eman zuten atzo Tolosako egoiztan eta «egungo egoera jasanezina» salatu agerraldia egin zuten sindikatuko kideek. Honekin batera, bertako baserriarrek ekoizturiko haragia erosteko deialdia luzatu nahi izan zieten erosle eta kontsumitzaileei.

Gipuzkoan haragi sektorearen egoera txarra ez da azken hilabeteetako kontua, «urteetan jasaten ari garen egoeraren jarraipen bat baizik». Batez ere azken bi urteetan lehengaien prezioaren igoera izan da kalteku diena: «Kasu askotan dirua irabazi beharrean zorra egitera iritsi da eta ondorioz kasu hauetan txahal gizenetzeari utzi egin zaiou».

Esaterako, 18 hilabetetan pentsua %30 igo egin da, eta honek ikuitu askoren ixtea ekarri du ondorio. Adibide gisa, honakoa: haragi kilo bat ekoiztea 4'5 euro kostatzen da, eta ekoizleak «4 euroan ezin salduz gabiltza. Guk ekoizten dugun moduarengatik gero saldo ezinda ibiltzen gara».

## Bertan ekoiztutako haragia

Datu batzuk ere ezagutzera eman zituzten: «Kontsumitzen den hamar txahaleatik ia zortzi kanpokoak» direla adierazi zuten. «Kontsumitzailea jakinaren gainean jarri nahi dugu, esanez, bertako baserriarrek ekoiztutako haragiak bezala ez diola kanpokoak kalitatez bermatuko».

Kontsumitzaileek «guk ekoiztutako haragia erosiz gero, denok aterako gara irabazten», hau da,



Aritz Katarain EHNEko haragi saileko arduraduna eta Garikoitz Zarate koordinatzailea nekazariekin batera. N. URBIZU

bai abeltzainak, «gure produktuek irteera izango dutelako», bai kontsumitzaileak «kalitatezko produktuek eskuratuko dituztelako».

Horretaz gain, produktu bakoitzak bere informazio etiketa izatea exijitu egiten dute nekazariak, hau

## 18 hilabetetan pentsua %30 igo egin da eta honek ikuitu askoren ixtea ekarri du ondorio

## Kontsumitzaileak ez daki nola gizen den kanpotik ekartzen den haragia

da, haragi horren jatorria, elikadura eta beste hainbat datu. «Aspaldi dagoen legea da, baina ez da bete-tzen: erosi behar dugun haragi puska bakoitzak bere identifikazioa behar du». Horregatik, kon-

sumitzaileak paper garrantzitsua dauka honetan, legea behar bezala bete dadin. Administrazioak etiketatatu beharko luke.

## Euskal Herriatik kanpoko

Bestetik, egoera kaxkartzen duen beste faktore bat ere azpimarratu zuten: Euskal Herriatik kanpora ekoiztutako haragiaren sarrera Gipuzkoako merkaturan, hain zuzen ere. Txahal asko Gipuzkoako hiltzetan hiltzen dira «administrazioaren inongo kontrolik gabe», merkatu librearen izenean.

Horregatik jakinaren gainean jarri nahi dute kontsumitzailea, «bertan ekoizten den azienda txikia dela, eta gizenetze baldintzak, jarritako arreta eta hiltegi eta harategietarako duten gertutasunak ziurtatzen digula bertako haragiaren kalitatea». Atzerititik ekartzen den haragiak, aldiz, «ez dakigu nola gizen den eta zertaz elikatu den».

## «Harakin batzuk, lanean fin»

EHNE sindikatukoek argi utzi nahi izan zuten, «harakin guzietik ez dutela berdin jokatzeko», hots; askok bertako haragia saltzen dutela behar bezala, eta haragi puska dagokion moduan dauzkate identifikatuta. «Harakin batzuk oso finak dira lanean. Gu elkarri laguntzeko gaude, haien beharra dugu, beraiek gurea bezala. Azken finean, erabaki individual bat da, harakinek hartu behar dutena, alegia».

Kasu batzuetan txekorra ez saltzearekin, haziz doa animalia eta irtenbideren bat emateko (kuitua hustu behar baita), hemengo bertako haragia Italian saldu dute, oso prezio merkean. «Horra iristen ari gara, honek dirua galtzea suposatzen duelarik: azienda gero eta handiagoa izan, gero eta gutxiago balio du». Beraz, zorak leku guztietatik sortzen zaizkie. «Datorren urtea okerragoa izango da».

## Altzon astelehenean, Plan Orokorra zer den azaltzeko bilera

### ERREDAKZIOA

Altzon datorren astelehenean udaletxeke ekintza aretoan 19:00etan, Altzoko Plan Orokorra (Arau Berriztatzaileak dira) aurkezteko bilera egingo dute. Honela herritarrek ahalik eta informatuago egongo dira.

Altzoko lurralde hirigintza aldetik arautzeko Udaletxean Arau Berriztatzaileak daude. Hauetan zehazten da zein diren zoru urbanoak, zoru urbanizagarriak eta zoru ez urbanizagarriak Altzon eta zoru mota bakoitzean zer egin edo erabaki daitekeen ere bai.

Altzoko Plan Orokorra erredaktatzeko lana arkitekto talde bati esleitu zitzaion eta dagoeneko aurrerakina deituriko dokumentua idatzi dute eta Udalak jendaurreko erakusketan jartzea erabaki du.

## Biharko Amezketako ohiko bilkuran mozio bat aurkeztuko dute

### ERREDAKZIOA

Bihar 20:30ean Amezketako udaletxeke pleno aretoan ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dira: Ergoneko aparkalekua egiteko inguruko etxearen lursail zati baten erosketa onartzea eta Landagipuzkoa 32 programarako diru laguntzen eskaera onartzea.

Mozio bat ere aurkeztuko dute eta euskal konpromisoa giza eskubideen alde ere ariko dira ohiko bilkuran.

Bukatzeko, batzordeen informazioa emango dute ezagutzera. Galdera eta erreguak egiteko tartea ere izango da.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Gelak.** Donostian, Antxo Jakitunaren etorbidean, pisu konpartitubatean bi gela alokagai, neska barenentzat. Bata 240 euro eta 330 euro bestea. Deitu arratsalde, 943111088.

### GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Artzain txakurra galdu dugu, Tolosako tren geltoki inguruan. Ikusi duenak dei dezala honako telefono zenbakira: 627 459 919.

## Laburrak

### Idoia Sanchez Ikaztegiaren eta Baliarrainen, bihar

**IPUIN-KONTAKETA** ■ Bihar, Ikaztegiaren eta Baliarrainen Idoia Sanchez ipuin kontalari tolosarra izango da, etxeko txikienei kontu magikoak azaltzen. Ikaztegiaren liburategian 17:00etan topatuko dute kontu ezberdinak kontatzen, eta Baliarrainen, aldiz, 18:15a aldera hasiko da, hemen ere bertako liburategian (Udaletxeke goiko solairuan). Ohi bezala, ekitaldi hau Galtzaundi euskara taldeak antolatuko du: datoren asterako ekitaldi gehiago antolatuko dituzte.

### Aralarrez gehiago jakiteko ingandean ibilaldia

**NATURA** ■ Lizarrusti Parketxeak antolatuko duen ibilaldiaren baitan Aralarko iraganeko basoen kudeaketari helduko diote: artzantza eta abelazkuntzaren eragina, baso motak, gertakariak, egungo irizpideak... hartuko dituzte hizpide. Nafarroako basozaina den Miel Mari Elosegilei leitzarra izango da bata. Hitzordua ingandean 08:30ean izango da Lizarrusti parketxean. Ibilaldira joan nahi duenak izena eman beharko du (943 180 285 edo 690 055 892).

## Independentzia Egunera joateko deia egin dute

### ERREDAKZIOA

Larunbatean Hernanin Independentzia Eguna ospatuko dute. Tartean, bazkaria eta kontzertuak izango dira eta Tolosaldean hauek joateko sarrerak salgai daude. Tolosako Denak eta Villabonako Iratzer tabernan eskura daitezke, eta etzi da hauek lortzeko azken eguna.

Bazkarira eta kontzertuetara joateko txartelak 24 euro balio du, eta kontzertuetarako 17.

Sokatira txapelketa ere izango da eta Gipuzkoak urdinez jantzita jokatu du: jarraitzaileak hala joatea ere eskatu dute parte-hartzaileek, «giroa gehiago berotzeko».

Bestalde, Hernanira trenetuz joango direnentzat deia egin dute: 10:40ean Hernanira iritsiko den trenen eskuorriak banatuko dituzte eta Renferen bidai-txartela ez ordaintzea eskatu dute. AHTren lotutako «desobedientziarako deialdia» izanik.

## Ertzainek bi gizonetzko atxilotu dituzte lapurreta egitea leporatuta

**Villabona** » Atxilotuta herenegun gauean egin zuten eta auto batean lapurreta egitea egotzi diete.

### ERREDAKZIOA

Ertzainek 18 eta 21 urteko bi gizonetzko atxilotu zituzten herenegun gauean Villabonako kale batean aparkatuta zegoen auto baten barruan lapurreta egin izana leporatuta.

Gau horretan lekuko batek Ertzaintzari deitu zion, bi gizonetzko Kale Berrian aparkatutako autoak begiratzen ari zirela esanez. Patruila iritsi zenean agenteek lekukoak emandako deskribapenarekin bat zetozen bi gizonetzko aurkitu zituzten. Gizonetzkoek, ertzainak ikustean, alde egiten saiatu ziren baina, minutu gutxira harrapatu egin zituzten, Ertzaintzak azaldutakoaren arabera.

Agenteek bi gizonetzkoak identifikatu egin zituzten eta inguruetan Peugeot 306 bat aurkitu zuten. Autoak atzeko atearen ondoko hiruki itxurako leihatila hautsita eta ateatako seguruak igota zeuzkan. Autoaren ondoan harri bat aurkitu zuten, ustez leihatila hausteko erabilia izan zena.

Aurrekoetz gain, susmagarrietako batek mugikor bat zeramangaienez baina ezin izan zien agenteek telefonoaren jabetza edo jatorriaren inguruko azalpen sinisgarriarik eman. Ertzaintzak azaldutakoaren arabera. Hau ikusita, agenteek bi gizonetzkoak atxilotu zituzten ustezko lapurreta delitua leporatuta.

Bi atxilotuek aurrekari polizialak dituzte eta Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, atzo goizean zehar Tolosako Epaitegian epailearen esku jarri zituzten.

## Abian da 2009ko egutegia egiteko argazki lehiaketa

**Anoeta** » Gaia librea izango da eta azaroaren 10ean amaitzen da epea argazkiak aurkeztu ahal izateko.

### ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak argazki lehiaketa antolatu du eta bertan saria jasotzen duten argazkiak 2009ko egutegian aterako dira. Egutegi hau Anoetako etxe guztietan banatuko dute abenduan. Parte-hartzaileak Anoetan erroldatuta daudenak edota Anoetako Herri Ikastolako

ikasleak izango dira eta bakarka nahiz taldean parte hartu ahaliko dute. Gaia librea izango da eta lehiakide bakoitzak, gehienez hiru argazki aurkez ditzake.

Argazkiak paperean errebelatuta aurkeztu behar dira, ez inprimatuta, 13x18 neurrian eta horizontalean, argazki bertikalik ez baita onartuko. Gutunazal batean sartuta aurkeztuko dira, eta gutuna alaren kanpoaldean *Argazki lehiaketa* ipini beharko du. Barruan doan argazki bakoitzaren atzealdean datu hauek idatzi beharko dira: lehiakidearen izena eta bere ordezkararen

izen-abizenak; kontakturako telefono zenbakia; eta argazkian zer azaltzen den eta non ateratzen den.

Lehiaketara argazkiak aurkezteko epea azaroaren 10era arte izango da, eta Anoetako udaletxean utziko dira. Sariak dagokionez, Udalak zortzi argazki sarituko ditu. Argazkiak Udalen 2009 urteko egutegian aterako dira eta 50 euro emango zaizkio argazki bakoitzaren egileari. Udalak saridun guztiei argazkiak eskatuko dizkie CDan edo negatiboetan. Bestalde, Udalak erakusketa egingo du argazki guztiek in kiroldegian azaroaren 24tik abenduaren 5era.

## Ekialde-ijito dantza ikastaroa Asvinenean

**Aduna** » Idoia Garaik emango du ikastaroa eta igande honetan izango da 10:30etik 12:30era eta 15:00etik 18:00etara.

### ERREDAKZIOA

Asvinenean ekialde-ijito dantza ikastaroa antolatu du igande honetarako. Idoia Garai izango da irakaslea eta 10:30etik 12:30era eta 15:00etik 18:00etara izango da ikastaroa. Antolatzailerak azaltzen dutenez, «lehenengo ikastaroak izan zuen arrakastaren ondoren, berriro antolatzeko aukera besterik ez genuen». Asvineneatik gaineratzen dutenez, orain gutxi irakaslea Indiatic itzuli da eta bertan ikasi dituen pauso berri batzuk irakatsiko ditu ikastaro honetan.



Ikastaroa iragartzen duen kartela. HITZA

Ekialde-ijito dantza, ekialdeko dantza arabiarren, batez ere sabel dantzarena, eta ijito dantzaren arteko fusioa da. Ijito dantza, hain zuzen, flamenkoaren iratxo-tek-

nika eta buhame dantzaren arteko nahasketa da.

Idoia Garai irakaslea formakuntza klasikoarekin hasi zen eta gero osatu zuen beste dantza mota askorekin. Sabel dantzatik hasi eta dantza garikidera, funktytik igaroz eta beste mota asko. Antolatzailerak azaltzen dutenez, «dantza askori buruz daki eta aditua da sabel dantzan, eskaera handia baitu».

Garaik urteak daramatza dantza mota asko irakasten eta baita eszenatoki gainean dantzatzen. Gustuko du ekialdeko dantza, «baina hau monotonoa bihurtu da gehiegikeriagatik». Horregatik Garaik ekialdeko dantza fusioan du ijito dantzarekin, erakargarritasun berritzaile emanez.

Ikastaroaren izena eman nahi duenak 676 94 3 7 15 telefono zenbakira dei dezake.

## Lasa eta Zabalari buruzko hitzaldia, bihar, Kultur Etxean

### ERREDAKZIOA

Lasa eta Zabalari buruzko hitzaldia emango du bihar Aiert Larralde Torturaren Aurkako abokatuak. Tolosako Kultur Etxean izango da hitzaldia eta 19:30ean hasiko da. DVD bat ere ikusi ahal izango da gaiari buruz.

## Zizurkil Barrena Beka eskatzeko epea etzi amaitzen da

### ERREDAKZIOA

Zizurkil Barrena Beka eskatzeko epea etzi, hilak 24, amaitzen da. Aurtengo deialdian zehazten denez, aztertu beharreko gaia Zizurkilgo euskara izango da. Ikerlana egiteko beka 3.000 eurokoa izango da.

## Tai chi ikastaroari gaur emango diote hasiera

### ERREDAKZIOA

Larraulen antolatu duten tai chi ikastaroa gaur bertan hasiko da. Astezkenero elkartuko dira, 17:45etik 19:45era. Ikastaroaren bukaera ekainaren 10ean izango da. Kultur Etxean emango dira ikastaroaren saioak eta parte-hartzaileek hilean 32 euro ordaindu beharko dituzte.

**txokoa**

**2 sarrera pare**  
zozketan, deitu eta eskuratu  
"Evolution & Love"  
ikuskizuna



Urriak 24, ostirala  
20:30etan  
Tolosako Leidorren

Tolosako gozogileek emango dituzte

**2 tarta**  
zozketan, deitu eta eskuratu

Urriak 25, larunbata  
Tolosa Goxua  
azokaren baitan



**3 harpidetza**  
zozketan, deitu eta eskuratu

**Kantxatik**  
aldizkaria

Urriak 23 bitarte  
deitzen duzuenon artean



# Zuzeneko musikak emango dio hasiera kultur jardunaldiei

**Asteasu** » Imanol Ubeda eta Karlos Aranzegi tolosarrek saio akustikoa egingo dute bihar udaletxeko zine aretoan.

150 euro jasoko ditu, bigarrenak 120 euro eta hirugarrenak 100 euro. Azaroaren 12tik aurrera argazkiak Kultur Etxean egongo dira ikusgai. Argazki rallyri buruz argibide gehiago nahi dituenak 943 69 68 96 zenbakira dei dezake 16:30etik 20:00etara.

## ERREDAKZIOA

Aurtengo Asteasuko kultur jardunaldiei hasiera emango diote bihar zuzeneko musikarekin udaletxeko zine aretoan. Imanol Ubeda eta Karlos Aranzegi musikari tolosarrek saio akustikoa egingo dute, ahotsa, kitarra eta bateriarekin. Bereziki Bide Ertzean taldeko kantuak joko dituzte.

Aste honetarako antolatu duten beste ekitaldia argazki rallya da. Aurtengoa bigarren aldia izango da Asteasun antolatzen dutena. Larunbatean goizean zehar egingo dute. Bi mailatan banatu dute: argazki digitala eta analogikoa. Gaia egunean bertan emango da jakitera. Sail bakoitzeko hiru sari banatuko dituzte. Lehenengoak

## Antzerkia, zinema eta Ekainberrira bisita

Kultur jardunaldiek datorren bi asteetan izango dute jarraipena. Urriaren 28an Gorringo taldeak haurrentzako antzerki emanaldia egingo du. Hurrengo ekitaldia urriaren 30ean izango da eta zinema euskaraz ikusentzuteko aukera izango dute *Eutsi!* filmarekin. Azkenik, irteera kulturala antolatu dute, Ekainberrira bisita hain justu. Azaroaren 5ean izango da eta argibideak eta izen-ematea Kultur Etxean egin behar da.

Bestalde, Udaletik jakinarazi dute urriaren 30a dela 2009ko egutegirako argazkiak entregatzeko azken eguna.

## » EGITARAUA

- **Urriak 23, bihar.** Imanol Ubedak eta Karlos Aranzegik *Kantu solteak* emanaldia egingo dute, 20:00etan, udaletxeko zine aretoan.
- **Urriak 25, larunbata.** Asteasuko II. Argazki Rallya. 09:00etatik 13:00etara. Hasiera Kultur Etxean.
- **Urriak 28, asteartea.** Gorringo

taldearen *1.728 animalia kontu* haurrentzako antzerkia.

■ **Urriak 30, osteguna.** *Eutsi!* filma, 20:00etan, udaletxeko zine aretoan.

■ **Azaroak 5, asteazkena.** Ekainberrira bisita. Irteera 15:30ean. Argibideak eta izen-ematea Kultur Etxean, 943 69 68 96 zenbakian.

Zuntz bidezko 6 M-ko DUOa

¿Adsl-a ala Zuntza?

Ehunka mila lagunek aukeratu dute dagoeneko.

euskaltel zuzentzat

10!

Ez gelditu atzean Adslarekin. Euskaltelek Zuntz Optikoarekin ematen dizu Internet. Kalitate hobekoa, azkarragoa eta merkeagoa. Deitu 1717ra, eta aldea igarriko duzu.

DUOa\* } LINEA BARNE

zuntzarekin } 19,5€

6M } hilean

+DEIAK } URTEBETEZ

zuntzOptikoa

Deitu 1717ra, edo zuzuki Euskaltelean sartokita.

zuntzOptikoa eta Zuntz Optikoaren eta Barne Linea zerbitzuak ez dira erabiltzeko. Zuntz Optikoaren zerbitzuak ez dira erabiltzeko. Zuntz Optikoaren zerbitzuak ez dira erabiltzeko. Zuntz Optikoaren zerbitzuak ez dira erabiltzeko.

## Pipix, Popix eta Marihotx

DVD berria etxeko txikiak jolasteko

## PANPINAK



DVDa (posterra opari) 18€



Panpina bakoitza (txapa opari) 20€



Egin eskaria amaitu baino lehen 902-82 02 01 edo [harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info) adierazi harpidetza kodea

hitza



## Pantaila akustikoak, guztion onerako

**IBARRA** • Orain gutxi arte Ibarro biaduktuan pantaila akustikoak jartzen aritu dira. Lan hauek bukatu dituzte jada; guztira 500 metro baino gehiagoetan jarri dituzte pantaila hauek inguruko bizilagunen mesederako, batez ere. Izan ere, HITZAK jakin ahal izan duenez bizilagunek aldaketa so-

matu dute eta zarata gutxiago pairatzen dute orain. Ibarro biaduktuko panel akustikoak jartzeko milioi erdi eurotako aurrekontua izan du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Datozen hilabeteetan Gipuzkoako errepide sarean horrelakoak jartzen jarraituko dute. **R.CALVO**

## Laburrak

### Poxpolo eta Mokoloren emanaldia, larunbatean

**LEABURU** • Larunbat honetan, hilak 25, Poxpolo eta Mokolo pailazo tolosarren emanaldia izango da Leaburuko pilotalekuan 18:00etatik aurrera. Emanaldi hau Leaburuko Udalak eta Uli Mankomunitateak antolatu dute eta Kutxak sustatu du. Udalak jakinarazi duenez, gainera, pailazoan *Run Run* izeneko emanaldia eta gero merienda-txoa banatuko du bertaraten direnen artean.

### Izena emateko epea amaituko da bihar

**BELAUNTZA** • Belauntzan Erretiratu Eguna izango dute igande honetan. Urteroko moduan egitarau oparoa prestatu dute eta bertan parte hartzeko izena emateko epea bihar, hilak 23, amaituko da eta Udalera deitu behar da goizeetan, 943 67 43 66. 12:00etan meza izango dute eta dantzarien erakustaldia eta toka txapelketa ondoren. Bazkaria ere antolatu dute Herriko Tabernan.

### Komikien erakusketa ikusteko azken egunak

**IBARRA** • Galtzaundi Euskara Elkarteak Ibarro antolatutako Galtzarako komiki lehiaketaren harira Euskarazko Komikien Erakusketa dago ikusgai herriko Kultur Etxean. Ostiral honetan izango da, hala ere, erakusketa ikusteko azken aukera. Arratsaldean bakarrik ikus daiteke, 17:00etatik 20:00etara. Gogoratu behar da, era berean, aipatu lehiaketan parte hartu nahi dutenek azaroaren 26a baino lehen bidali behar dituztela lanak.

### Etxeko arriskuen berri izateko azalpenak

**BELAUNTZA** • Uli Mankomunitateak *Etxeko arriskuak eta lehen laguntzak* izeneko hitzaldia antolatu du biharko, 17:00etan Belauntzako Kultur Etxean. Bertan, istripu-mota nagusien berri emango dute, hala nola, intoxikazioak, etxeko istripuak, janariaren eta botiken ondoriozko intoxikazioak eta abar. Etxeko istripu arruntak zeintzuk diren eta lehen laguntzak nola eskaini ere azalduko dute.

## Hitzaldiak, erakusketak eta dokumentalak 'Herrien Astea'-n

**Ibarra** » Hilaren 27an hasi eta azaroaren 1ean amaituko dira Jatorkin elkarteak antolatutako kulturarteko topaketak.

### ERREDAKZIOA

Jatorkin etorkinen elkarteak *Herrien Astea* izeneko kulturarteko topaketak antolatu ditu Ibarro datorren asterako.

*Palestina bake kultura bate-runtz?* lelopean hitzaldi eta dokumental desberdinak eskainiko dituzte herriko Kultur Etxean hilaren 27an hasi eta azaroaren 1a

bitarte eta horretarako Mundubat eta Ibarro Udalaren laguntza izan dute. Era berean, Yon Caze-neren argazki erakusketa bat ere izango dute herriko Kultur Etxeko erakusketa gelan hilaren 27tik aurrera. Inaugurazioa 19:00etan izango da, baina lehenago, 17:00etatik aurrera ere bisitatu ahal izango da. Erakusketan Caze-neren Palestinako argazkiak ikusi ahal izango dira eta honekin batera, gainera, Hirugarren Mundua eta Bakea izeneko Gorbemuz Kanpoko Erakundearen irudi desberdinak ere jarriko dituzte. Erakusketara gerturatzen denak, gainera, Palestinarekin zerikusia

duen materiala ere erosi ahal izango du. Astelehenean erakusketa-ren inaugurazioa eta gero, 20:00etan zehazki, *Venganza por uno solo de mis ojos* dokumentala eskainiko dute eta aurkezpena Komite Internazionalistak taldeko Lidon Sorianok egingo du.

### Rojoren esperientziak

Hilaren 29an, asteazkenean, 19:00etan Lidon Sorianok *Palestina, garbiketa etnikoko 60 urte* hitzaldia eskainiko du. Hilaren 30an aldi, Fernando Rojo tolosarrak orain gutxi Ekialde Hurbilera egoniko bidaiaren berri emango du 19:30etik aurrera.

Ostiralean, hilak 31, *Bagdad Rap* dokumentala eskainiko dute eta bere zuzendaria, Iruñeko Arturo Cisneros, ere gerturatuko da Ibarro dokumentalean parte hartu zuten hainbat brigadistekin batera. 21:30ean Tolosako Oargi Elkartearen afaria ere egingo dute.

Kulturarteko topaketetako azken eguna azaroaren 1 izango da, egun horretan Tolosako Izaskun Auzoko Sanblaspiokoko lokal-letan, Denak tabernaren ondoan, Palestina eta beste herrialde batzuetako musika bideoak jarriko dituzte 20:00etatik aurrera. Ondoren afari informala egingo dute bertan.

## Hilberria

### JESUS ETXABE GOENAGA

Bertsolaritzarako bazendun artea famili bazkaritan hartuaz tartea. Bihotza hain zabala umorez bete zain gogorra den zuri agur esatea gudan egongo zera ai *Jexux* maitea.



Zure ilobak: Aitor eta Gurutze, Xabier eta Nieves, Josu, Arantxa, Asier eta Ainhoa, Jon eta Margari, Goizatz eta Jair, Irati eta Gorka, Larraitz eta Mikel, Iker eta Ainhoa, Eneko eta Olatz, Ainhoa eta Javi, Eneitz eta Josu, Oskar eta Nagore, eta Jon.

**AZPEITIA**  
2008ko urriaren  
22a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

## «Norberak berea emateko, askotan onena izen gehiago duen baten aurka jokatzeari izaten da»

MIKEL OLAZABAL » Pilotaria

**Areso** » Beotibar pilotalekuan 22-16 irabazizion herenegun Olazabalek Oinatz Bengoetxeari Lau t'erdiko Txapelketan.

### ASIER IMAZ

Asegarceko arduradunak burumakur utzi zituen herenegun Mikel Olazabal (Areso, 1986) gazteak Beotibar pilotalekuan, izan ere, Lau t'erdiko Txapelketatik euren pilotari garrantzitsuenetarikoa kaleratu zuen Aspeko arosoarrak.

**Lorik egin al zenuen partida irabazi eta gero?**

Ez. Ez nuen oso ondo egin egia esan. Lotara sartu eta lo ezin hartu izandu nintzen.

**Partiduari bueltak ematen?**

Bai. Normalean partida ondoren horrela aritzen naiz; buelta dezentz ematen dizkiot.

**Aita izan zenuen laguntzaile bezala frontoian.**



UR ALGERO

Biok ere gustura. Partida hasterako bagenekien oso zaila izango zela eta gero irabazita biok osogustura.

**Lehenengo mailako txapelketa batean jokatu zenuen lehen partida izan zen. Presiorik sentitu al zenuen?**

Ez. Nik uste presioa berak zuela. Bera da Txapelduna, nik lehenbiziko aldian nuen jokatzeko nuaena, presio guztia beretzako zen eta nik lasai jokatu nuen, libre, deus galtzeko ez neukan. Askotan, izen gehiago duen baten aurka jokatzeari izaten da onena, norberak berea emateko.

**Oso indartsu hasi zinen hasieran.**

Banekien hasiera oso garrantzitsua izan zitekeela. Sakea niri tokatu zitzaidan eta ematera atera nintzen, airez ere ongi irten zitzaizkidan jokaldiak. 7-0 irabazten jarztea oso garrantzitsua izan zen.

**Pilotan ikusi ez zaituena harritzeko moduan utzi zenuen.**

Askotan gorpuzkerak ere asko

esan nahi du; batzutan motel edo pika bat kosta egiten zaigu partidari sartzeari, atzo berriz bizinongoen eta horrela zaudenen pilota errazago mugitzen da. Batzuetan egun oso txarrak izaten dira eta beste batzutan onak, atzo ona irten zen eta gustura hartzen dira horrelako partidak.

**Nola ikusi zenuen Bengoetxea?**

Hasieratik pixka bat lotua ikusi nuen, kantxan ez zen ongi ibiltzen eta aukera zuenean normalean egiten duen mina ez zuen egin. Baina batik bat lotuta ikusi nuela esango nuke; presio handia zuen eta normala da.

**8. tantoan lehertuta amaitu zenuen.**

32 pilotazo inguruko tanto oso gogorra izan zen. Gero buelta ongi eman nion, nahiz eta tanto batzuetan nekaturik ibili. Bueltarik eman izan ez banio ziurrenik tanto gehiago galduko nituen eta irabazteko nahiko lan izango nuen, lehenaz gain.

**Urriaren 25ean, Koka izango duzu aurkari Iruñian.**

Berriz ere partida oso zaila. Asko sakatzen du eta pilotean oso ongi ibiltzen da. Botera tantoa erraz amaitzen du eta partida zaila izango da. Ahal dudana hobekien jokatzeko saiatuko naiz eta ea berriz ere irabazten dudana.

## 'Mikologialdia', ama lurraren laguntzaz

**Leitza** » Gaur hastekoa zen arren, bihar hasiko da ziza eta ondoen inguruko ekimena naturaren eta herritarren laguntzarekin.

### A. IMAZ

Altzadi Leitzako Kultur Elkarteak herritarrei proposamen bat egin nahi izan die *Mikologialdia*-rekin: «Zizak eta ondoak gustatzen al zaizkizue? Eta, ezagutzen al dituzue? Bada, begira zer prestatu dugun».

Eta begira, zabaldu begirada jakintzari. Gure basoetan zer? Leitzako Karrapen; han. Bihartik igandera beraz, Leitzako Udala-ren, Aurrerako Mendibil Taldearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin: *Mikologialdia* antolatatu du Altzadi Elkarteak haur, gazte eta helduentzat.

Hala eta guztiz ere, naturaren fruituekin antolatutako oro bezala, ama lurra kontutan hartu beharra izanen da.

**Nahi eta ezin**

Inguruko perretxikozaleak kexa dira aurtengo denboraldiarekin: «iazkoa ez zen ona izan baina aurtengoa oso txarra».

Altzadiko kideak ere kezkatuak aurkitzen dira, nahi eta ezina barnean daramatela. «Ziza eta ondo dastaketa egitea pentsatu genuen



Alpino Uzturrek urriaren 11n mikologia erakusketara antolatatu zuen Tolosan. ESTI EZBEZA

baina aurtengo denboraldia ez da batere ona. Mendira joan gara baina ez dugu ezer askorik bildu. Ondorioz, gaur mendira joateko asmoa genuen baina azkenean bihar joanen gara. Ostiralean Karrapen elkartuko gara iluntzean, bakoitzak bere aldetik bildu duena ikusi eta balantze bat eginen dugu. Ea larunbatean egin nahi dugun sailkapena egiteko adina ziza edo ondo biltzerik dugun».

Gauzak horrela, herritarrei deialdia: «mendira joateko asmoa duenak, bere aldetik zizak bilduko balitu, ostiralean Karrapera agertzea besterik ez luke izanen». Horretaz gain, honakoa gogorazazi

dute: «sailkapenak egiteko ziza edo ondoak ez dira jangarriak izan behar nahi eta nahiez. Ahalik eta mota gehien elkartu nahi ditu-

gu larunbaterako». Azkenik aipatu edo euria egin zuela. Aurten ez du ezer asko esan nahi baina, aipatzeagatik.

### » EGITARAUA

**Urriak 23, bihar**

■ Mendira ondo eta ziza bila. Haurrak marrazkiak egiten hasiko dira eskolan.

**Urriak 24, etzi**

■ Mendira ondo eta ziza bila. ■ **Iluntzean.** Batzarra Karrapen: bildutako ondo eta zizen areberako erabakiak hartuko dituzte.

**Urriak 25, larunbata**

■ **09:30ean.** Haurrekin mendi irteera. Onddo eta ziza bila. ■ **Arratsaldean.** Bildutako ondo eta zizen sailkapena Karrapen.

**Urriak 26, igandea**

■ **11:00etan.** Erakusketara mikologi-koa eta marrazki-lehiaketaren erakusketara Karrapen.

## Laburrak

**Elkartasun Egunerako txartelak salgai bihar arte**

**LIZARTZA** » Herritar talde batek Elkartasun Eguna antolatatu du azaroaren lerako: 10:00etan dultzaine-roak 13:00etan zanpanzarrak, 14:00tan txaranga, 14:30ean zikiro jatea ekitaldi desberdinetarako dirua biltzeko. Txartelak hilaren 23a baino lehen, hau da, bihar baino lehen erosi behar dira 22 eurotan eta ohiko lekuetan daude salgai.

**Vanessa Alzateren erakusketara Aranburun**

**TOLOSA** » Vanessa Alzate ibartarraren pintura, eskultura, grabatu eta collageak ikusgai daude Tolosako Aranburu jauregian, azaroaren 15era bitarte. Leitza kaleko laugarren solairuan ere interbentzio bat egin du gazteak. Ibarrako artistaren lehen bakarkako lana da Aranburun dagoena.

**Alpinoren irteera Iparraldeko txokoetara**

**TOLOSA** » Alpino Uzturre elkarteak Sara - Zugarramurdi mendi irteera antolatatu du hilaren 26rako, igandearrekin. Orotara zazpi ordu inguruko ibilaldia izango da eta Larrun (900 m), Ibantelli (698 m) eta Atxuria (756 m) mendiak igoko dituzte. Interesatuek izena elkartertean (943 652789 zenbakia) eman dezakete.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Nafarroa aldera txangoa

**Albiztur** » 20 lagunek Irunberrira joan ziren pasa den larunbatean; inguruak ezagutu eta upategi batera joan ziren.



Upategira joan aurretik paseotxo eman zuten arrolatik. E.E.

## ESTI EZEIZA

Pasa den larunbatean, 20 lagun inguru Nafarroa hegoaldeko zenbait txoko ezagutzera joan ziren. 08:30 aldera ateraz ziren Albizturtik, eta Irunberriko bidean jarri. Hara iristean, lehendabizi arroila ezaguna bisitatu zuten, paseotxo bat emanaz bertatik. Udalerriaren alboan kokaturik dago hau. Laburra baina oso interesgarria den haiztebakia da, Irati ibaiak bertako kareharria erosi onatuz eratu zuen. Kilometro bateko luzera du eta 150 eta 400 metro arteko altuera.

Historian zehar, gizakiak ezin izan du bertara heldu topografia malkartsua zela medio, XX. mendera arte, Zangotza eta Iruñea lotzen zituen trenbidea egin zen arte. Gaur egungo bidea, antzinako trenbide horrek (1995. urtean itxi zen) zabalduko bide berbera da. Arroilaren hegoaldeko muturrean dago kokaturik Deabruen zubia.

Naturari dagokionez, erreserba naturala da, bertan kokaturik baitago hegazti harrapakarien kolonia garrantzitsu bat.

## Bisitaren ondoren, Aristu upategi ekologikora

Arroila ikusi ondoren, Irunberriko herrigunera joan ziren, hau pixka bat ikusteko. Baina denbora gutxi egin zuten bertan, bazkaltzeko garairako, Aristu upategi ekologi-

kora hurreratu baitziren. Han lehendabizi, mahastiak ikusi zituzten, eta ardoa nola egiten den ikusi. Bestalde, ardo ekologikoen eta gainontzekoen arteko ezberdintasunak zeintzuk diren ezagutzeko aukera ere izan zuten.

Azalpenak entzuten zituzten bertan, ardo ezberdinak dastatu zituzten. Ondoren, Aristu bertan bazkaldu, eta arratsalderako, Xabierko gaztelura bideratu ziren. Eraikin esanguratsu hauek ikusita, etxera abiatzeko garaia heldu zitzaizkien, eta ilunabarrean iritsi ziren Albizturrera. Txangoaren amaieran gustura agertu ziren bidaiariak, eta hurrengo itzerterako zenbait proposamen luzatu zituzten.

## A Agurrak



### Urte askoan!

### Zorionak Mirentxu!

Asko maite zaitugu. Muxu handi bat etxekoan partetik.

agurrak urtebetetzak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** 18:00etan liburutegian ipuin kontaketa, Amaia Zinkunegiren eskutik, udazken kulturalaren baitan.

■ **Belauntza.** Jubilatuta Eguna hilaren 26an: 12:00etan meza, dantzariak, toka txapelketa, 14:00etan bazkaria eta opari banaketa eta bertsolariak. Izen-ematea 23a baino lehen udaletxean 943 674366.

■ **Lizartza.** Herritar talde batek Elkartasun Eguna antolatuta du azaroren 1erako: 10:00etan dultzaineroak 13:00etan zanpanzarrak, 14:00etan txaranga, 14:30ean zikiro jatea ekitaldi desberdinetarako dirua biltzeko (txartelak hilaren 23a baino lehen erosi behar dira 22 eurotan ohiko lekuetan).

■ **Tolosaldea.** PNV, EA, IU y Aralar alderdiek hilaren 25ean Legutiora *Hitza Hitz* bakea eta erabakitze eskubidearen aldeko kontzentrazioa autobus antolatuta dituzte, tren geltokitik 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 688 677307an.

### Zinema

■ **Tolosa.** Mugarik Gabe erakundeak antolatutako Zinema eta kooperazio emanaldiak Kultur Etxean egunero 20:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## SASOI BERRIETARAKO EZKATAK

HITZAren arropa berria salgai

salmenta puntuak

**Tolosako DENAK tabernan**

**HITZako Tolosa eta Leizako bulegoetan**

arropak ikusgai: [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...